

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Iraganetik etorkizunera



Xabier Etxaniz Erle

Bi herri ipuin jasotzen dira *Mainamikirri* izeneko liburu eder honetan: *Erregeren alaba* eta *Katu beltzak* izenekoak; biak, kredituetan ageri den bezala, Burundako herri ipuinak eta Izaskun Etxeberriak 1986an eginiko grabazio batetik jasoak.

Ipuinak ahozko kontakizun idatziak ditugu, ozenki irakur daitezkeen istorioak, eta herri ipuinetan gertatu ohi den bezala deskribapen gutxi, ekintza asko eta elkarrizketaz osatuak. *Erregeren alaba* honela hasten da: “Baziren behin bost garbitzaile errotara joaten zirenak arropak garbitzera. / Haietan txikiena *Mainamikirri* zen, eta sorginena. / Goiz batean, errotan zeudela, batek galdetu zuen: / – Neskak, hemen gara denok? / – Ez, *Mainamikirri* falta dun –erantzun zuen beste batek. / –Betikoa. Hura beti azkenekoa.”

Baina *Mainamikirri* agertu bezain pronto akabo bertako lasaitasuna; *Mainamikirri*-k erregeren alaba oso gaixo dagoela esaten die baina berak badakiela zer egin behar den hura sendatzeko (zaldi baten bitsa izaran batu...). Kontua da emakumeak hizketan ari diren bitartean kuxkuxero batek dena entzun eta erregeren alaba sendatu zuela, bai eta dirutza ederra jaso ordainean. Hurrengo batean *Mainamikirri*-k eta lagunek, kontu kontari hasi aurretik, inguruak arakatu zituzten eta kuxkuxeroa harrapatu eta errotan ehotzeko imintzio ere egin zuten. Gizontxoak korrika ihes egin zuen... eta badirudi oraindik ere lasterka ari dela!

Katu beltzak ere sorginkeriarekin erlazonaturiko euskal ipuin tradizionala dugu; eta, aurrekoa bezala,

Mainamikirri

CASTILLO SUAREZ

Ilustrazioak:

Josemari Morcillo, *Morkots*
Fanietorri argitalpenak, 2018

Castillo Suarez Garcia
idazlea (Altsasu,
Nafarroa Garaia, 1976).

ARGAZKILARIA: ENARA INTSAUSTI.



oso erraz irakur eta entzun daitezkeen istorioa.

Morkots-en ilustrazio handiek are gehiago erakartzen dute irakurlea istorioak jarraitzera. Irudiekin eta hutsuneekin jolasten du ilustratzaileak irakurlearen arreta areagotzeko eta irudietan, aspaldiko giroa islatzen duen arren, lortu du gaurkotatasuna ere agertzea.

Bai kontakizunengatik bai ilustrazioengatik *Mainamikirri* oso liburu erakargarria egiten da, iragana gaur egunera ekarriz, etorkizuna eraiki dezagun. Eta alde horretatik pena bakarria dauka, liburu hau sorturiko eskualdean bakarrik eskura daitekeela eta oso zabalkunde txikia duela.

Txalogarria da Fanietorrikoek eginiko lana, hainbat udalek eta erakundek egin duten bezala; egongo ahal da lan hau eta hau bezalakoak Euskal Herri osora zabalduko dituen argitaletxea! ■